


ELEIZEA

BILL, RICK, RENE



ERRIA BEGIRA

Bill, Rick eta Rene iru gazte dira. Alboko argazkian agertzen diranean, astebete barru abade izateko ustean dagoz.

Eurak agertu dauskue bizibide au zergaitik artu dabena.

Batek diño: «Nire abadetzea bakantasan pozgarri lez ikusi dabe adiskideak».

Besteak: «Mundu bien artean lotuta ikusten nabelako, mintu egiten dira».

Irugarrenak: «Nire erritarrak bizitza barri onetan zelan jokatu ete dodan dagoz».

ERRIAREN AURREAN

Bill'ek ogei ta zapi urte daukaz, Richard'ek ogei ta bost eta Rene'k ogei ta sei.

Irurak pasiotarren taldera sartu dira eta abade egin. Abadetzea artu baiño aste bat lenago, New York' en azaldu dabez euren bizibideko zeregiñak.

*

SENIDEEN ERITXIA

Euren senitarteko askok ez ekien zer pentsau. Gizon gazte ta trebetsu oneik, gizartean aberastu eikezan, onuratsu ta ospetsu izan be bai; baiña aukerapen ori zorakeria zala esan arren, biotz-ikaraz egozan. Ori diño Richard'ek.

«Senideen pentsakerea agertzea ez da gauza erreza», diño Rene'k.

Bill'ek, «pozik eta bizkor nabil» diño.

ERDI-MAILLA KOAK

Irurak dira gizartean, erdi-maillakoak.

Rick Frechette, Connecticut'ekoa, bere sendiko sei naba-arreben artean bigarrena.

Bill Cotter, Massachusetts'ekoa, bare ta neurriduna, abots mardulez agertzen ditu bere asmoak. Anai bi daukoz.

Rene Bouchard, Southwick'ekoa, iru neba-arreben artean zarrena.

Irurak dira abeslariak, pianu ta organu-jotzailleak eta musikariak.

SENDIKO ARAZOA

Irurak diño euren sendiak ez dituala abadetza bultzatu, baiña erabagi ori artu ebenean sendiak eroankor agertu zirala onartzeko: «Nik ori nai nebala ikusirik, ez eben eragozpenik ipiñi» diño Bill'ek.

«Nik auxe esan neuntsen —diño Rene'k—: Ez dakizue irlandar ama bakoitza semeren bat abade izan daiten itxaroten eta otoitz egiten dagoala?».

—«Gizataldeak norbaitegan abade dalako uste ona artzen dauanean, abadearen bizitza arduraz eta benetak jokabidez beteten da» —diño Rick'ek.

ARTU-EMONAK

Iruren ustez, urko lagunaren ardurea daukan abadeak, aren bizitzako jazoera nagusietara dauko sarre-rea: Jaiotzetako poztasunean, eriotzako negar-reen, samintasunetan, gaiso-aldietan... eta beti izaten dau laguntza ta berba egokia emoteko errea.

GERTAKIZUNAK

Bost urtetan bizi izan dira gazte oneik pasiotarra-kaz.

Lenengo «nobizio» edo lekaide barri lez, urtebete; gero txirotasun, garbitasun, eta menpetasun-ziñak eta alkargoan biziteko agindua.

Orren ostean lau urtetan teologia ikasten eta abade-lanetarako gertatzen. Aldi onetan Thomas Merton'en «Zazpi maillako mendia» irakurri eben eta biotz ikara aundia asmau eben.

BIZIBIDE BARRIA

Pasiotarren bizibidea, maitekorra aurkitu eben eta alkargoa maite eben: «Zalegarri da ogei ta lau urtetik larogei urtera bitarteko diranen arteko bizibide au: guztiak euren arloetan zein-geiagoka lanean. Mundurako ikuspegi bardiña, alkar-izketa eta jolas-aldi egokiak...»

ALDATZ-GORA

Ba-dira gauza gatzak eta latzak be: iritxi bardiña lortzeko gaiztasuna, artzain-laneko jokabideak, gaisoen lanerako gertatu-bearra, Gogoak Jainkaogana eta betiko bizitzara urreratzeko lana, gizarte-arazoe-tan txiroyen zeregiñak, gaiso osatu-eziña daukenakazko alkar-izketak, olako uneetan Jesus'en nekaldia gogoratzea eta adorea emotea...

EGILUZE'K